

**INTSEKTU  
POLINIZATZAILEAK  
SUSTATZEKO EGOKIAK  
DIREN LANDARE-ESPEZIE  
AUTOKTONOEN UDAL-  
KATALOGOA –**

**2. liburukia**



## Edukia

|                                        |    |
|----------------------------------------|----|
| SARRERA.....                           | 4  |
| ESPEZIEEN FITXAK.....                  | 5  |
| <i>Achillea millefolium</i> .....      | 6  |
| <i>Aquilegia vulgaris</i> .....        | 7  |
| <i>Arbutus unedo</i> .....             | 8  |
| <i>Asphodelus albus</i> .....          | 9  |
| <i>Buxus sempervirens</i> .....        | 10 |
| <i>Calendula arvensis</i> .....        | 11 |
| <i>Calluna vulgaris</i> .....          | 12 |
| <i>Cornus sanguinea</i> .....          | 13 |
| <i>Daucus carota</i> .....             | 14 |
| <i>Hedera helix</i> .....              | 15 |
| <i>Jasminum fruticans</i> .....        | 16 |
| <i>Lavandula stoechas</i> .....        | 17 |
| <i>Ligustrum vulgare</i> .....         | 18 |
| <i>Lonicera periclymenum</i> .....     | 19 |
| <i>Malva sylvestris</i> .....          | 20 |
| <i>Marrubium vulgare</i> .....         | 21 |
| <i>Medicago sativa</i> .....           | 22 |
| <i>Narcissus pseudonarcissus</i> ..... | 23 |
| <i>Origanum vulgare</i> .....          | 24 |
| <i>Papaver dubium</i> .....            | 25 |
| <i>Rosmarinus officinalis</i> .....    | 26 |
| <i>Ruscus aculeatus</i> .....          | 27 |
| <i>Sambucus ebulus</i> .....           | 28 |
| <i>Smilax aspera</i> .....             | 29 |
| <i>Sorbus aria (Aria edulis)</i> ..... | 30 |
| <i>Spartium junceum</i> .....          | 31 |
| <i>Thymus vulgaris</i> .....           | 32 |
| <i>Valeriana officinalis</i> .....     | 33 |
| <i>Veronica officinalis</i> .....      | 34 |
| TERMINOEN GLOSARIOA.....               | 35 |
| BIBLIOGRAFIA.....                      | 39 |

|                          |    |
|--------------------------|----|
| ARGAZKIEN KREDITUAK..... | 41 |
|--------------------------|----|

---

Idazketa eta edizioa: ONDOAN, S. COOP. – José M<sup>a</sup> Blanco

Itzulpena: Hedapen Global Services, SL

## SARRERA

Lehen *Landare-espezie Autoktonoen Katalogoaren* osagarri gisa, koaderno honetan beste 29 landare sartu dira. Oso gomendagarriak dira hiriko lorezaintza jasangarrian erabiltzeko. Landare horiek, hain zuzen ere, espezie klimazikoak direlako hautatu dira, eta, era berean, loratze interesgarria dute, gure hiriko intsektu polinizatzaileek aprobetxa ditzaten. Izan ere, horri erreparatzen ez badiogu ere, gure bizitza ez litzateke berdina izango intsektuen presentziarik gabe. Espezie batzuk gogaikarri samarrak edo kaltegarriak izan daitezke (adibidez, gure osasunerako edo nekazaritzarako), baina, zalantzarik gabe, gure planetan bizitza erabat desberdina izango litzateke intsektuak desagertuko balira. Hori dela eta, ahal dugun neurrian, gure lorategietan edo, are, gure terrazetan edo balkoietan animalia txiki horien presentzia sustatzeko egin dezakegun jarduera orok (gure hiriak haiekin oso atseginak ez direla kontuan hartuta) harrera ona izango du aliatu txiki horien aldetik.

Horregatik, gida txiki honetan ideiak ematen dira, alde batetik, gure landare-biodibertsitate zoragarria sustatzeko, gure etxebizitzetako hiri-lorategiak, terrazak eta leihoak kolorez gainezka egon daitezen, bertako landareen presentziari esker, eta, bestetik, loratze interesgarri eta oparoak lortzeko, berez ederrak izateaz gain intsektu polinizatzaileentzat erakargarriak izan daitezen, lore horiei guztiei esker gure hirian berme handiagoz biziraun ahal izateko arnasmune atsegina lortuko baitute. Hala, lehen liburukian, sartu diren landare-espezieen fitxetan, alderdi hauek jorratzen dira, besteak beste: legezko babes-estatusa, espezie bakoitzaren ezaugarrien deskribapen labur bat (identifikatzeko baliagarriak direnak), bisitatu ohi dituzten intsektu-espezie batzuk (normalean, elikagai bila), deskribatutako espezie bakoitzak dituen berezitasunak (batez ere, erabilera tradizionalari dagokienez), edo espezie bakoitzak apaindura-mailan erabiltzeko dituen aukerak.



Sarrera hau amaitzeko, gogoratu behar da, espezie bakoitza deskribatzeko orduan, saiatu garela termino botaniko gehiegi ez erabiltzen, eta, nolanahi ere, testuan zehar agertzen direnak glosario txiki batean azaltzen direla, dokumentu honen amaieran. Glosario hori, era berean, beste erreferentzia batzuk kontsultatuz osa daiteke, kontsultatutako bibliografiari buruzko atalean zehazten direnak kasu.

Espero dugu gida honetan jasotako guztia baliagarria izango dela, bai hirian bizi den gizakiarentzat, bai, aukerarik ematen badiegu, Bilboko berdeguneetan hegaka eguna alaituko diguten ornogabeentzat.

## ESPEZIEEN FITXAK

---



# Achillea millefolium

Euskara: Milorri, sanjuan-belar  
Gaztelania: Milenrama

Familia: *Asteraceae*

Babes-maila: Europako Zerrenda Gorria: Kezka txikikoa  
Habitaten Zuzentzaraua: -  
139/2011 ED: -  
AEEZ: -



## ESPEZIEAREN IDENTIFIKAZIOA

Belar-landare bizia da, eta 70 cm-ra irits daiteke. **Errizoma** bat du, eta zurtoinak tenteak dira, baina denboraren poderioz gogortu egiten dira. **Hostoak** bipinnatisektoak dira, norabide guztietan hazten diren segmentuekin. **Loreek** kapituluak osatzen dituzte (buru txikiak, zurtoinen errematean), eta braktea koriazeoak, iletsuak, lore zuridunak edo arrosa samarrak dituzte. **Fruituak** (akenioak) oboideak dira, alboetan konprimatuta daude, bi saihetsekin, eta ez dute kardilaunik.

Belardi, baso-soilgune edo ezponda nitrifikatuetakako espezie tipikoa da. Edozein substraturen gainean bizitzeko gai da.

2.100 m-raino aurki daiteke, eta udan loratzen da.

## BISITAN JOATEN ZAIZKION INTSEKTUAK

Espezie hau bisitatzen duten intsektuen artean, erle europarra (*Apis mellifera*) edo kardu-vanesa (*Vanessa cardui*) aipa daitezke.

## ESPEZIEAREN BEREZITASUNAK

Penintsulako iparraldean infloreszentziak infusioan erabili dira, kamamila moduan, baina kalitate txarragokoak direla uste da.

Landarea elikagai gisa erabiltzen dute kilkerrek.

Haren izena Akiles heroi greziarrari eskainia dago, zeinak, legendaren arabera, sendagai gisa erabili baitzuen.

## APAINGARRI GISA ERABILTzea

Zenbait eskualdetan, apaingarriak egiteko eta lore-zentroak egiteko erabiltzen dira infloreszentzia lehorrak.

Informazio  
gehiago:

<https://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/ac34aBuscadorWar/especies/buscar/?q=Achillea%20millefolium>  
[https://www.plantasyhongos.es/herbarium/htm/Achillea\\_millefolium.htm](https://www.plantasyhongos.es/herbarium/htm/Achillea_millefolium.htm)  
[https://www.miteco.gob.es/es/biodiversidad/temas/inventarios-nacionales/inventario-espanol-de-los-conocimientos-tradicionales/inventario\\_esp\\_conocimientos\\_tradicionales.html](https://www.miteco.gob.es/es/biodiversidad/temas/inventarios-nacionales/inventario-espanol-de-los-conocimientos-tradicionales/inventario_esp_conocimientos_tradicionales.html)  
<https://www.iucnredlist.org/es/species/202909/2757955>

# Aquilegia vulgaris

Euskara: Kuku-belar

Gaztelania: Aguileña, espuela de caballero

Familia: *Ranunculaceae*

Babes-maila:

Europako Zerrenda Gorria: Kezka txikikoa

Habitaten Zuzentzaraua: -

139/2011 ED: -

AEZ: -



## ESPEZIEAREN IDENTIFIKAZIOA

Landare bizia da eta zurtain adarkatuak ditu. Espezie hau lehortu egiten da neguan, baina birsortu egiten da udaberrian, halako moldez, non anduitik **hostoak** sortzen baitira, peziolo luzekoak, erroseta-eran banatzen direnak; handiak, zorroratzaileak eta lobulatuak dira. **Loreek** bost sepalo petaloideo (hau da, petaloak diruditenak) eta bost petalo dituzte, ezproi gakotuekin, urdinak edo biolazeoak. Lorezil asko daude. **Fruitua** folikulu polispermo bat da.

Baso-soilguneetan eta belardietan dago, leku fresko eta itzaltsuetan, errepideetako baso-bazterrak gutxietsi gabe, eta 2.000 m-raino iristen da.

Espezie hau apiriletik uztailean loratzen da.

## BISITAN JOATEN ZAIZKION INTSEKTUAK

Erle europarrak eta erlastar arruntak (*Bombus terrestris*) maiz bisitatzen dituzte espezie honetako loreak.

## ESPEZIEAREN BEREZITASUNAK

Gorbeialdean (Bizkaia), tradizioz, loreak petaloen nektarra aprobetxatzeko erabiltzen ziren.

Hala ere, kontuan izan behar da espezie toxikoa dela, hostoek eta loreek glukosido nitriko kopuru txikiak dituztelako, eta deskonposatzean azido zianhidrikoa sortzen delako.

## APAINGARRI GISA ERABILTZEA

Maiz erabiltzen dira apaingarri gisa lorategi eta parterreetan, lore urdinak oso erakargarriak direlako (izan ere, lorezaintzako barietateak daude).

Loratutako adarrak apaingarri-sorta deigarriak egiteko ere erabiltzen dira.

Informazio gehiago:

[https://www.plantasyhongos.es/herbarium/htm/Aquilegia\\_vulgaris.htm](https://www.plantasyhongos.es/herbarium/htm/Aquilegia_vulgaris.htm)

[https://www.miteco.gob.es/es/biodiversidad/temas/inventarios-nacionales/inventario-espanol-de-los-conocimientos-tradicionales/inventario\\_esp\\_conocimientos\\_tradicionales.html](https://www.miteco.gob.es/es/biodiversidad/temas/inventarios-nacionales/inventario-espanol-de-los-conocimientos-tradicionales/inventario_esp_conocimientos_tradicionales.html)

[http://www.floraiberica.es/floraiberica/texto/pdfs/01\\_036\\_20\\_Aquilegia.pdf](http://www.floraiberica.es/floraiberica/texto/pdfs/01_036_20_Aquilegia.pdf)

[https://www.miteco.gob.es/content/dam/miteco/es/biodiversidad/temas/inventarios-nacionales/1360\\_tcm30-99437.pdf](https://www.miteco.gob.es/content/dam/miteco/es/biodiversidad/temas/inventarios-nacionales/1360_tcm30-99437.pdf)

# Arbutus unedo

Euskara: Gurbitz  
Gaztelania: Madroño

Familia: *Ericaceae*

Babes-maila: Europako Zerrenda Gorria: Kezka txikikoa  
Habitaten Zuzentzaraua: -  
139/2011 ED: -  
AEEZ: -



## ESPEZIEAREN IDENTIFIKAZIOA

Zuhaixka edo zuhaitz txiki bat da, 7 m garai, hostoiraunkorra eta forma irregularrekoa, eta adar gorrixkak ditu. **Hostoak** txandakakoak dira, peziolo motzekin; obatuak, hortz finekoak eta larrukarak dira. **Loreek** sortak eratzen dituzte, urtzeolatuak edo aortzatuak (kanpai- edo ontzi-itxurakoak), zuri-krematsuak. **Fruitua** baia esferikoa da, azalera latzekoa, gorri bizikoa heldzean (fruituak hurrengo urtean heldzen dira, beste loratze batekin batera).

Hegaletan eta amildegietan banatzen da, batez ere lurzoru azidoetan, harritsuetan, 1.000 m-raino. Uda amaieran edo udazken hasieran loratzen da.

## BISITAN JOATEN ZAIZKION INTSEKTUAK

Landare ezti-emaile ona da. Erle arruntak nektarretik egiten duen eztiak oso kolore iluna du, eta ezaugarri sendagarriak dituela esaten da. Landare honetan elikatzen den beste espezieetako bat *Cetonia aurata* da, kolore berde delikatuko kakalardoa.

## ESPEZIEAREN BEREZITASUNAK

Fruituak jangarriak dira eta alkohol pixka bat dutela esaten da. Oro har, gordinik jaten dira, baina marmelada ere egin daiteke haiekin. Haziak hegaztiekin eta ugaztunek barreiatzen dituzte, fruituak jan ondoren, udazkenetik aurrera baliabide bikainak baitira haienentzat.

## APAINGARRI GISA ERABILTzea

Landare apaingarri gisa erabiltzen da, iraunkorra delako eta loreak eta fruituak apaingarriak direlako.

Sustraiarekin sukaldeko hainbat tresna zizelkatzen dira, hala nola koilarak eta burruntzaliak.

Informazio  
gehiago:

[https://www.plantasyhongos.es/herbarium/htm/Arbutus\\_unedo.htm](https://www.plantasyhongos.es/herbarium/htm/Arbutus_unedo.htm)  
<https://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/ac84aBuscadorWar/especies/11562>  
<https://www.conecte.es/index.php/es/plantas/184-arbutus-unedo>

# Asphodelus albus

Euskara: Anbulo zuri  
Gaztelania: Gamón blanco

Familia: *Liliaceae (Asphodelaceae)*

Babes-maila: Europako Zerrenda Gorria: Kezka txikikoa  
Habitaten Zuzentzaraua: -  
139/2011 ED: -  
AEEZ: -



## ESPEZIEAREN IDENTIFIKAZIOA

Landare iraunkorra da, **errizoma** bat du eta, bertatik, tuberkulu ugariko luku bat garatzen da. **Hostoak** basalak eta lautuak dira, eta ertz dentikulatua dute. **Loreek** luku konposatuko infloreszentzia bat osatzen dute, zeina zurtoin leun eta luze baten muturrean jaiotzen baita. Lore bakoitzak sei tepalo zuri eta 6 lorezil ditu. **Fruitua** 13 mm arteko kapsula bat da, oboidea edo orbikularra.

Basoetako eta sastrakadietako soilguneetan banatzen da, 2.400 m-raino. Apiriletik abuztura loratzen da.

## BISITAN JOATEN ZAIZKION INTSEKTUAK

Erleek nektar-kantitate handiak lortzen dituzte haren loreetatik, eta, beraz, erlezainek asko estimatzen dituzte. Erlastar arruntak ere espezie horretako loreak bisitatzen ditu. Intsektuez gain, barraskiloek ere maiz erabiltzen dute espezie hau.

## ESPEZIEAREN BEREZITASUNAK

Landare hau barazki gisa kontsumitu da, porru basati gisa (hostoen kimu samurrak). Azken horiek oso baloratuak ziren aurreko garaietan, eta 50eko hamarkadara arte Donostiako merkatuetan saltzen ziren.

Zurtoin loredun lehorrak oso ondo erretzen dira eta sua pizteko egur fin gisa erabili dira.

## APAINGARRI GISA ERABILTZEA

Haren infloreszentzia ikusgarria etxeko pitxerrak apaintzeko edo elizetako aldareak apaintzeko erabiltzen zen.

Informazio  
gehiago:

<https://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/ac84aBuscadorWar/especies/16373>  
[https://www.plantasyhongos.es/herbarium/htm/Asphodelus\\_albus.htm](https://www.plantasyhongos.es/herbarium/htm/Asphodelus_albus.htm)  
<https://www.euskonews.eus/0485zbnk/gaia48503es.html>  
[http://www.floraiberica.es/floraiberica/texto/pdfs/20\\_183\\_31\\_Asphodelus.pdf](http://www.floraiberica.es/floraiberica/texto/pdfs/20_183_31_Asphodelus.pdf)

# Buxus sempervirens

Euskara: Ezpel  
Gaztelania: Boj

Familia: *Buxaceae*

Babes-maila: Europako Zerrenda Gorria: Kezka txikikoa  
Habitaten Zuzentaraua: -  
139/2011 ED: -  
AEEZ: -



## ESPEZIEAREN IDENTIFIKAZIOA

Zuhaitz txiki bat da, hostoiraunkorra, adar askokoa, azal horixkakoa. **Hostoak** obado-eliptikoak dira, osoak, peziolo motzarekin, aurkakoak, larrukarak, gainalde berde ilun distiratsuekin eta azpialde argiagoarekin. Adar gazteek eta hostoen oinarriek ile pixka bat erakusten dute, baina gainerako hostoak ilerik gabe agertzen dira. **Loreak** oso txikiak eta horixkak dira. **Fruitua** kapsula koriazoe azpiesferiko txiki bat da, eta hiru adar txiki ditu.

Sastrakak eratzen ditu amildegietan eta hegaltzuetan, 100 eta 2.100 m artean. Otsailetik apirilera loratzen da.

## BISITAN JOATEN ZAIZKION INTSEKTUAK

Erle arruntaz gain, aza-tximeletak (*Pieris rapae*) ere preziatzen ditu ezpelaren loreak.

## ESPEZIEAREN BEREZITASUNAK

Landarea euliak harrapatzeko erabiltzen zen, haren usainak erakartzen baititu.

Zura sendoa denez eta erraz zizelka daitekeenez, nekazaritzako edo etxeko hainbat tresna egiteko erabili izan da (makilak, kirtenak, hautsontziak, koilarak, etab.).

Adar hostodunak baratzeetan landatutako espezieak eguzkitik babesteko erabili dira.

Alkaloideak (buxina), funtsezko olioak eta erretxina dituen, intoxikazioak eragin ditzake.

## APAINGARRI GISA ERABILTZEA

Batzuetan, finkak banatzeko erabili izan da.

Era berean, ezpel-hazkuntza apaingarri gisa zabaltzen da, lorezaintzan heskai trinkoak sortzeko.

Informazio gehiago:

<https://www.conecte.es/index.php/es/plantas/372-buxus-sempervirens>  
<https://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/ac84aBuscadorWar/especies/11262>  
<https://www.iucnredlist.org/es/species/202944/2758165>

## Calendula arvensis

Euskara: Ilen kultibatu      Familia: *Asteraceae (Compositae)*  
Gaztelania: Caléndula, maravilla silvestre

Babes-maila: Europako Zerrenda Gorria: -  
Habitaten Zuzentzaraua: -  
139/2011 ED: -  
AEEZ: -



### ESPEZIEAREN IDENTIFIKAZIOA

Urtero ateratzen den landare belarkara da, zurtoinak tenteak edo goranzkoak ditu, eta **hosto** txandakakoak ditu, osoak edo horzdunak, oblongoak edo eliptikoak. Kapituluak (lore konposatuko landarea da) bakarrik agertzen dira eta **loreak** horiak edo laranjatuak dira, kanpokoek ligula (mihia) dute, eta barrukoak hodi-formakoak dira. **Fruituek** akenioak osatzen dituzte.

Bideen ondoan eta soroetan banatzen da, 1.500 m-raino. Urtarriletik ekainera loratzen da eta ematen du fruitua.

### BISITAN JOATEN ZAIZKION INTSEKTUAK

Beste intsektu batzuen artean, landare honen loreak erakargarriak dira lore-euliarentzat (*Sphaerophoria rueppelli*), arro mediterraneoko sirfido autoktonoa baita; haren larbek landare-zorriak eta beste intsektu batzuk harrapatzen dituzte (izurriteen kontrol biologikoan aliatua da), baina helduek polena eta nektarra jaten dituzte.

### ESPEZIEAREN BEREZITASUNAK

Zenbait eskualdetan, hosto samurrak barazki gisa erabili dira, beste basa-belar eta lekale batzuekin batera.

Petalo zukutuak eltxoen ziztadaren aurka erabili dira.

Larruazaleko arazoak tratatzeko erabili ohi den landarea da, eta olio, xaboi eta kremetako osagai gisa erabiltzen da, hanturaren aurkako efektua eta efektu orbaintzailea duelako.

### APAINGARRI GISA ERABILTZEA

Lorategietan landatzen den espeziearen hain antzekoa da (ilen kultibatua edo *Calendula officinalis*), ezen askotan zaila izaten baita bereiztea.

Informazio  
gehiago:

<https://www.ingurumena.eigv.euskadi.eus/ac84aBuscadorWar/especies/10829>  
<https://www.conecte.es/index.php/es/plantas/378-calendula-arvensis>  
[https://www.unavarra.es/herbario/htm/Cale\\_arve.htm](https://www.unavarra.es/herbario/htm/Cale_arve.htm)

# Calluna vulgaris

Euskara: Txilar  
Gaztelania: Brezo

Familia: *Ericaceae*

Babes-maila: Europako Zerrenda Gorria: Kezka txikikoa  
Habitaten Zuzentzaraua: -  
139/2011 ED: -  
AEEZ: -



## ESPEZIEAREN IDENTIFIKAZIOA

Zuhaixka txiki hostoiraunkor bat da, eta zurtoin tente edo etzan asko ditu. **Hostoak** oso txikiak dira, gutxi gorabehera lau lerrotan bilbatuak. **Loreak** luku terminal deigarrietan sortzen dira, eta lau sepalo obalatu dituzte, arrosak edo zurixkak; korola kanpai-formakoa da, lau petalo lantzeolaturekin, soldaduak oinarrian, arrosak; zortzi lorezil dituzte, baina ez dira korolatik irteten. **Fruitua** globo-itxurako kapsula bat da, petaloz eta sepaloz inguratua, eta bertan hazi ugari eta txikiak daude.

Maiatzetik azarora loratzen da.

## BISITAN JOATEN ZAIZKION INTSEKTUAK

Oso landare ezti-emaile ona da (txilar-eztia), eta, berandu loratzen denez, erleek udazkenean jaten duten azken landarea da. *Vanessa atalanta* (almiral gorria edo bulkana) edo *Aricia cramera* (arretxoa) tximeleak ere bisitatzen dituzte haren loreak.

## ESPEZIEAREN BEREZITASUNAK

Otalur eta sastraka azidofiloetan banatutako espeziea da, baina baso-soilguneetan, utzitako zelaietan eta zohikaztegietan ere hazten da, itsas mailatik mendi garaietaraino.

## APAINGARRI GISA ERABILTZEA

Txilar arrunta lantzeko, espazio eguzkitsuak eta ur gutxi behar dira.

Landare honetako sorta lehorrak pitxerrak apaintzeko erabiltzen dira.

Informazio gehiago:


<https://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/ac84aBuscadorWar/especies/11565>  
<https://www.iucnredlist.org/es/species/202945/2758171>

# Cornus sanguinea

Euskara: Zuhandor  
Gaztelania: Zuhandor

Familia: *Cornaceae*

Babes-maila: Europako Zerrenda Gorria: -  
Habitaten Zuzentzaraua: -  
139/2011 ED: -  
AEZ: -



## ESPEZIEAREN IDENTIFIKAZIOA

Zuhaixka hau 8 metro garai izan daiteke (baldintzak onak badira), eta adar tenteak ditu. **Hostoak** eliptikoak edo obatuak dira, nerbiazio markatua dute, iletuak, eta gehienez 1 cm-ko pezioloa. Hostoen zurtoinak eta pezioloak gorri ilunak edo arre-gorrixkak dira. **Loreek** infloreszentziak osatzen dituzte, zeinak kantu luze batetik jaiotzen baitira; loreek kaliza ñimiño bat dute, eta korolak, lau petalo lantzeolatu, izar-forman irekiak, zuriak. Loretik, lorezilak (4) estiloarekin batera irteten dira. **Fruitua** drupa beltz urdinxka da, eta bi hazi ditu. Heskaiak eratzen ditu eta basoko orletan dago, 1.300 m-raino. Maiatzetik uztailera loratzen da, eta udazkenean heltzen dira fruituak.

## BISITAN JOATEN ZAIZKION INTSEKTUAK

Bai erle arruntak, bai tximeleta batek, *Pieris brassicae* (aza-tximeleta handia), maiz bisitatzen dituzte espezie honetako loreak.

## ESPEZIEAREN BEREZITASUNAK

Penintsulako iparraldean ezaguna zen izerdiak larruazala ukitzeak eragiten zuen eragin narritagarria.

Eskualde batzuetan, hostoak desegosten ziren ilea garbitzeko, eta fruituak ehunak tindatzeko erabili dira.

Hostoek azido salizilikoa dute, eta haziak, berriz, % 20rainoko olio, eta horregatik erabili dira lanparetarako erregai gisa.

## APAINGARRI GISA ERABILTZEA

Udazkenean, landare osoak kolore arre-gorrixka hartzen du, eta horrek lorategi eta terrazetarako bertute apaingarriak ematen dizkio.

Informazio  
gehiago:

<https://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/ac84aBuscadorWar/especies/30124>  
<https://www.conecte.es/index.php/es/plantas/605-cornus-sanguinea>

# Daucus carota

Euskara: Azenario basati

Gaztelania: Zanahoria silvestre

Familia: *Apiaceae*

Babes-maila: Europako Zerrenda Gorria: Kezka txikikoa

Habitaten Zuzentzaraua: -

139/2011 ED: -

AEZ: -



Informazio  
gehiago:

<https://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/ac84aBuscadorWar/especies/28239>

<https://www.iucnredlist.org/es/species/172210/6849906>

[http://www.floraiberica.es/floraiberica/texto/pdfs/10\\_129\\_15%20Daucus.pdf](http://www.floraiberica.es/floraiberica/texto/pdfs/10_129_15%20Daucus.pdf)

## ESPEZIEAREN IDENTIFIKAZIOA

Urteroko edo bi urtez behingo landarea da, eta **sustrai** loditua edo arbi-formakoa du. **Hostoak** txandakakoak dira, segmentu linealekin. **Loreak** unbela- edo itzalkin-formako infloreszentzia batean biltzen dira, kandu luzekoa; loreak hermafroditak dira, pentameroak, eta korolak petalo zuria ditu. **Fruitua** eliptikoa da, lehen mailako saihsak ditu, bi ile-ilararekin, eta bigarren mailako saihsak, arantzekin.

## BISITAN JOATEN ZAIZKION INTSEKTUAK

Espezie honen infloreszentziak erle europarrak edo *Episyrphus balteatus* eulia espezieak bisitatzen ditu; emeek landare-zorrien kolonien ondoan uzten dituzte arrautzak (haien larbak landare-zorri elikatzen dira; helduek, berriz, loreak bisitatzen dituzte eta nektarrez eta polenaz elikatzen dira). Makaonaren (*Papilio machaon*) aleak ere ikus daitezke espezie horretako loreen gainean.

## ESPEZIEAREN BEREZITASUNAK

Arbi-formako sustraiak barazki eta bazka gisa erabiltzen dira, eta elikagai-koloratzaile bat ematen dute (karotenoa, E160a); haziak usaintsuak dira. Sustrai txigortua kafearen ordezkoko gisa erabiltzen da. Sustraiak azukre-iturri gisa erabili dira, eta gorriak gurina koloratzeko iturri gisa.

Zurtoinak eta hostoak tindu horiak prestatzeko erabiltzen dira.

## APAINGARRI GISA ERABILTZEA


Loreak oso deigarriak dira, eta, beraz, freskoan erabil daitezke, beste lore batzuekin batera, lore apaingarriak egiteko, edo, bestela, lehortu egin daitezke, eta haien iraupena luzatu.

# Hedera helix

Euskara: **Huntz**  
Gaztelania: **Hiedra**

Familia: **Araliaceae**

Babes-maila: **Europako Zerrenda Gorria: Kezka txikikoa**  
**Habitaten Zuzentaraua: -**  
**139/2011 ED: -**  
**AEZ: -**



## ESPEZIEAREN IDENTIFIKAZIOA

Landare iraunkorra da, zurezkoa, eta, heltzeko arroka edo enborren bat badu, 30 metroko luzera izan dezake. Bi motatako **hostoak** ditu, igotzeko erabiltzen diren adarretan agertzen direnak (3 edo 5 ataletan banatuta daude) eta lore-adarretakoak (arrautza-itxura edo erronboide-forma dute). **Loreak** unbeletan biltzen dira (globo-itxurako sortak osatuz); petalo txikiak berde-horixkak dira. **Fruitua** baia biribila da, beltza ia beti, 2-4 hazirekin, eta garun-formako apaindura, kalizaren 5 hortzez koroatua. Harkaitzetan, hormatzarretan eta basoetan dago, eta 1.400 m-raino iristen da. Irailetik azarora loratzen da.

## BISITAN JOATEN ZAIZKION INTSEKTUAK

Erleek maiz erabiltzen dituzte haren loreak, eta, berandu loratzen denez, elikagai-iturri garrantzitsua da erleentzat udazkenaren hasieran. Liztor arrunta (*Vespula vulgaris*) ere maiz ibiltzen da espezie honetan.

## ESPEZIEAREN BEREZITASUNAK

Penintsulako zenbait lekutan, fruitu helduak pagausoentzako elikagai gisa erabiltzen ziren (*Columba palumbus*). Hala ere, fruituak toxikoak dira pertsonentzat eta animalia askorentzat. Antzina, hostoak egosten ziren arropa beltza garbitzeko edo beltzez tindatzeko.

## APAINGARRI GISA ERABILTZEA

Lore-sortei ukitu landatarra emateko erabiltzen dira adarrak. Heskaiek egiteko eta hormak estaltzeko ere erabili izan da, sendotasun handiagoa emateko edo apaintzeko (kanpoko hormak berdez estaltzeko), eta, era berean, baratzeetan eta lorategietan ere landu ohi da, apaintzeko.

Informazio gehiago: <https://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/ac84aBuscadorWar/especies/10789>  
<https://www.iucnredlist.org/es/species/202964/2758285>

## Jasminum fruticans

Euskara: Basa-jazmina  
Gaztelania: Jasmín silvestre

Familia: *Oleaceae*

Babes-maila: Europako Zerrenda Gorria: -  
Habitaten Zuzentzaraua: -  
139/2011 ED: -  
AEEZ: -



### ESPEZIEAREN IDENTIFIKAZIOA

Zuhaixka honek 2 metroko altuera izan dezake. Zurtoin tente asko izaten ditu, lau angeluko sekziokoak eta **hosto** trifoliolatukoak, foliolo eliptiko edo obobatuekin. **Loreak** bi edo hiruko taldeetan agertzen dira, pedizeloa dute, bost hortz estu-estu dituzte, eta korola, hodi luze eta hori batekin, bi lorezilekin eta estigma sinplearekin. **Fruitua** globo-itxurako baia bat da, beltza, eta lau hazi ere baditu. Sastrakadi edo harkaitzetan bizi da, 1.800 m-raino. Martxotik uztailean loratzen da.

### BISITAN JOATEN ZAIZKION INTSEKTUAK

Erle europarrak (*Apis mellifera*) bisitatzen ditu haren lore usaintsuak, baina baita zenbait tximeleta-espezie ere, hala nola kardu-vanesak (*Vanessa cardui*).

### ESPEZIEAREN BEREZITASUNAK

Garai batean, loratutako adarrak eltxoen uxagarri gisa erabiltzen ziren, eta loreak, alkoholetan sartuak, lurrinak egiteko erabiltzen ziren.

Fruituak tinduak prestatzeko osagaietarako erabili dira.

### APAINGARRI GISA ERABILTZEA

Batzuetan, basa-jasmina patioetan landua izan da, landare apaingarri gisa, eta, izatez, genero horretakoa da jasmina ere (*Jasminum officinale* L.), apaintzeko landutako landarea.

Informazio gehiago: <https://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/ac84aBuscadorWar/especies/12010>  
<http://www.arbolesornamentales.es>  
<https://www.floravascular.com>

# Lavandula stoechas

Euskara: Izpiliku  
Gaztelania: Cantueso

Familia: *Lamiaceae*

Babes-maila: Europako Zerrenda Gorria: -  
Habitaten Zuzentzaraua: -  
139/2011 ED: -  
AEEZ: -



## ESPEZIEAREN IDENTIFIKAZIOA

Zuhaixka hostoiraunkorra da, eta hosto osoko eta kolore grisaxkako sasi usaintsuak ditu. Lau angeluko zurtoina du, aurkako **orriak** ditu, linealak, eta ertz errebolutuak. **Loreak** txikiak eta ez oso agerikoak dira, bioletak edo oso ilunak edo moreak; galburu-formako infloreszentzia batean banatzen dira, braktea antzu koloreztatuekin amaitzen dena; loreak hermafroditak dira, pentameroak, goiko hortz bat duen kaliza batekin; korola bi ezpainekoa da. **Fruituak** lau nukula ditu.

Lurzoru silizikoak nahiago dituen zuhaixka bat da, udaberrian modu ikusgarrian loratzen dena.

## BISITAN JOATEN ZAIZKION INTSEKTUAK

Bisitatzen duten intsektu-espezieen artean, *Vanessa atalanta* tximeleta edo erle europarra aipa daitezke. Erlastarrak (*Bombus terrestris*) eta kolibri-esfingearen (*Macroglossum stellatarum*) aleak ere hurbiltzen dira loreetara.

## ESPEZIEAREN BEREZITASUNAK

Eskualde mediterraneoan jatorria duen espeziea da, eta lurringintzan erabiltzen den olio esentzial bat ateratzen da bertatik.

Erle-landare garrantzitsua da Mediterraneoan; izan ere, erleek bisitatzen dituzte loreak, eta nektarraren bila joaten dira, batez ere.

## APAINGARRI GISA ERABILTZEA

Espezie apaingarri gisa erabili ohi den landarea da, infloreszentzia ugari eta ikusgarriak dituelako.

Informazio gehiago: <https://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/ac84aBuscadorWar/especies/16324>  
<https://www.conecte.es/index.php/es/plantas/1240-lavandula-stoechas>  
[https://www.plantasyhongos.es/herbarium/htm/Lavandula\\_stoechas.htm](https://www.plantasyhongos.es/herbarium/htm/Lavandula_stoechas.htm)

## Ligustrum vulgare

Euskara: Arbustu, binorri  
Gaztelania: Aligustre

Familia: *Oleaceae*

Babes-maila: Europako Zerrenda Gorria: -  
Habitaten Zuzentzaraua: -  
139/2011 ED: -  
AEEZ: -



### ESPEZIEAREN IDENTIFIKAZIOA

Zuhaixka hostogalkorra da, edo, batzuetan, hostoiraunkorra. **Hostoak** aurkakoak dira, zertxobait malguak, gainalde berde distiratsuekin eta azpialde zurbilarekin. **Loreak** infloreszentzia terminaletan banatzen dira eta hermafroditak dira, tetrameroak. **Fruitua** baia beltz distiratsu deigarri bat da.

Jatorriz Europakoa da.

### BISITAN JOATEN ZAIZKION INTSEKTUAK

Bertan bizi diren intsektu-espezieen artean, erle europarra edo *Pieris brassicae* tximeleta aipa daitezke.

### ESPEZIEAREN BEREZITASUNAK

Zurtoin gazteak saskigintzako gaiak egiteko erabiltzen dira. Haren zura, gogorra, elastikoa eta oso erresistentea, tornugintzako lan txikietan erabiltzen da.

Azala eta fruitua koloreak lortzeko erabiltzen dira; tindaketa-prozesuetan erabiltzen dira, eta horitik marroira aldatzen dira. Hala, kapelak beltzez tindatzeko erabiltzen dira fruituak, baina estraktu urdin bat ere ematen dute, eskularruak tindatzeko eta tinta lortzeko, estanpak koloreztatzeko. Kimu samurrek eta hostoek tindu berdea ematen dute.

Fruituek narritadura eragin dezakete digestio-traktuan (glukosido ligustrina dagoelako) eta, pertsona sentikorretan, landareak ukipen-dermatitisa sor dezake.

### APAINGARRI GISA ERABILTZEA

Oso espezie erabilia da heskaiak osatzeko, loreek edo fruituek ederki apainduak, eta oso ondo egokitzen dira maiz kimatzera.

Informazio gehiago: <https://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/ac84aBuscadorWar/especies/12003>  
[https://www.plantasyhongos.es/herbarium/htm/Ligustrum\\_vulgare.htm](https://www.plantasyhongos.es/herbarium/htm/Ligustrum_vulgare.htm)

# Lonicera periclymenum

Euskara: Atxapar, sasiama      Familia: *Caprifoliaceae*  
Gaztelania: Madreselva de los bosques

Babes-maila: Europako Zerrenda Gorria: -  
Habitaten Zuzentzaraua: -  
139/2011 ED: -  
AEEZ: -



## ESPEZIEAREN IDENTIFIKAZIOA

Xirmendu-antzeko zuhaixka igokaria da, eta aurkako **hostoak** ditu, edo hosto obatu edo lantzeolatuak, iletsuak, laburki peziolatuak edo eseriak. **Loreak** irregularrak dira eta multzo terminal kandudunetan banatzen dira; korolak tutu-forma bereizgarria du, luzea eta estua; bi ezpainekoa da, zuria edo arrosa.

**Fruitua** baia gorrixka bat da.

Baso hostogorretan eta ibarbasoetan egoten da, 50 eta 1.800 m artean.

Maiatzetik uztaiera loratzen da, eta uztailetik urrira ematen du fruitua.

Mediterraneoko espeziea da.

## BISITAN JOATEN ZAIZKION INTSEKTUAK

Espezie honetako loreak erle arruntak eta *Vanessa atalanta* ximeletak erabiltzen dituzte. *Amegilla 4-fasciata* espezieko erle hondeatzailearen aleek ere bisita dezakete.

## ESPEZIEAREN BEREZITASUNAK

Loreak, beren eztitasun eta nektar ugariagatik, gozoki gisa erabiltzen ziren penintsulako hainbat eskualdetan.

Hala ere, fruituak toxikoak dira eta haurrentzat arriskutsuak izan daitezke, kolore gorri biziak erakartzen baititu; hala ere, zapore desatsegina dute eta irensteak nahasmenduak eragin ditzake digestio-traktuan, gorakoak eta beherakoak.

## APAINGARRI GISA ERABILTzea

Atxaparra baratze eta lorategietan landu daiteke, espezie apaingarri gisa, haren loreen usain atseginagatik eta haren fruituen ikusgarritasunagatik (izan ere, hainbat espezie landatu daude).

Informazio  
gehiago:

<https://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/ac84aBuscadorWar/especies/16414>  
[https://www.miteco.gob.es/content/dam/miteco/es/biodiversidad/temas/espacios-prottegidos/91E0\\_tcm30-196890.pdf](https://www.miteco.gob.es/content/dam/miteco/es/biodiversidad/temas/espacios-prottegidos/91E0_tcm30-196890.pdf)  
<http://www.gbif.org/species/5334277>

# Malva sylvestris

Euskara: Basa malba  
Gaztelania: Malva

Familia: *Malvaceae*

Babes-maila: Europako Zerrenda Gorria: Kezka txikikoa  
Habitaten Zuzentzaraua: -  
139/2011 ED: -  
AEEZ: -



## ESPEZIEAREN IDENTIFIKAZIOA

Bi urteko landare iraunkorra da, sarritan herrestaria, glabroa edo iletsua. **Hostoak** horzdunak edo zerratuak dira eta **loreak** faszikulu axilarretan edo terminaletan jartzen dira; triangelu-formako 5 sepalo eta 5 petalo aske purpura edo malba-koloreko dituzte, nerbio ilunagoekin; lorezil ugari dituzte. Fruitua eskizokarpo lautu bat da; atal txikietan irekitzen da, eta haietako bakoitzak hazi bat du.

Bide-ertzetan, landu gabeko lekuetan eta giza jardura duten guneen inguruetan banatzen da, 0 eta 1.600 m artean. Martxotik urrira loratzen da.

## BISITAN JOATEN ZAIZKION INTSEKTUAK

Haren loreen artean ohikoa da erle europarra (*Apis mellifera*) ikustea, nektarra askatzen eta polena biltzen, baita karduvanesa (*Vanessa cardui*) ere.

## ESPEZIEAREN BEREZITASUNAK

Barazki gisa nahiko hedatuta dago (hosto samurrak fresko jan daitezke entsaladan, bakarrik edo beste landare batzuekin batera). Infusio freskagarri bat ere egin daiteke loreekin.

Loreek "Malvina" izeneko koloratzailea dute, eta hostoak batzuetan tindu berdeak lortzeko erabili izan dira.

Lorearen eta hostoaren estraktua kosmetikan erabili izan da lasaigarri gisa.

## APAINGARRI GISA ERABILTZEA

Landare honen petalo ikusgarriak apaintzeko ere erabili izan dira; izan ere, loreak hilerrietan jartzeko sortak egiteko erabiltzen dira.

Informazio gehiago:

<https://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/ac84aBuscadorWar/especies/11935>

<https://www.iucnredlist.org/es/species/203359/2764355>

[https://www.miteco.gob.es/content/dam/mitco/es/biodiversidad/temas/inventarios-nacionales/iect\\_malva\\_sylvestris\\_tcm30-164114.pdf](https://www.miteco.gob.es/content/dam/mitco/es/biodiversidad/temas/inventarios-nacionales/iect_malva_sylvestris_tcm30-164114.pdf)

[https://www.unavarra.es/herbario/htm/Malva\\_sylv.htm](https://www.unavarra.es/herbario/htm/Malva_sylv.htm)

# Marrubium vulgare

Euskara: Lekugi  
Gaztelania: Marrubio

Familia: *Lamiaceae*

Babes-maila: Europako Zerrenda Gorria: Ia mehatxatuta  
Habitaten Zuzentzaraua: -  
139/2011 ED: -  
AEEZ: -



## ESPEZIEAREN IDENTIFIKAZIOA

Landare iraunkorra da, eta oinarrian apur bat zurezkoa. Zurtoinak tente-tente ditu, askotan itxura iletukoak. **Hostoak** obatuak edo azpitriangeluarrak dira, horzduak, kandudunak (batez ere behekoak), oro har iletuak. **Loreek** globo-itxurako infloreszentzia trinkoak osatzen dituzte; korola kremakolorekoa da eta kalizatik gutxi irteten da, goiko ezpaina tente duela eta behekoan hiru lobulu dituela. **Fruituak** elipsoidalak eta gaztainakolorekoak dira. Lur idorrek lehenesten ditu, bide-ertzetan edo belardi nitrofiloetan, 1.500 m-raino. Otsailetik azarora loratzen da.

## BISITAN JOATEN ZAIZKION INTSEKTUAK

Haren lore txikiek *Vanessa atalanta* edo erle europarrari jaten ematen diote, beste espezie batzuen artean.

## ESPEZIEAREN BEREZITASUNAK

Zenbait lekutan, espartzu gisa erabili da landare hau, baxera garbitzeko, eta erratzak egiteko ere bai, egosteko labeak garbitzeko. Landarearen estraktua larruazala lasaitzeko eta egokitzeko erabili izan da betidanik.

## APAINGARRI GISA ERABILTZEA

Lorategietan erabil daiteke, unada berde ilunak osatuz, lore txikien kolore zuria nabarmenduz.

Informazio gehiago:

<https://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/ac84aBuscadorWar/especies/11862>  
<https://www.conecte.es/index.php/es/plantas/1378-marrubium-vulgare>  
<https://www.iucnredlist.org/es/species/203247/2762568>  
[https://www.plantasyhongos.es/herbarium/htm/Marrubium\\_vulgare.htm](https://www.plantasyhongos.es/herbarium/htm/Marrubium_vulgare.htm)

# Medicago sativa

Euskara: Argi-belarra  
Gaztelania: Alfalfa

Familia: *Fabaceae (Leguminosae)*

Babes-maila: Europako Zerrenda Gorria: Kezka txikikoa  
Habitaten Zuzentzaraua: -  
139/2011 ED: -  
AEEZ: -



## ESPEZIEAREN IDENTIFIKAZIOA

Landare iraunkorra da, belar-zurtoinak ditu, oso adartsua eta iletsua. **Hostoak** trifoliatuak dira, kandudunak, foliolo obobatuekin, eta hortzak dituzte goiko herenean. **Infloreszentziak** 10 eta 30 lore arteko luku axilarretan jartzen dira; korola nabarmentzen da, bioleta. **Fruituak** bi edo hiru espora dauzka irekita, eta heltzen denean, beltza da. Batez ere soroetan eta lugorrietan dago, 2.000 m-raino. Urte osoan loratzen da.

## BISITAN JOATEN ZAIZKION INTSEKTUAK

Erle eta erlastar arruntek (*Bombus terrestris*) maiz joaten dira landare honetako loreetara.

## ESPEZIEAREN BEREZITASUNAK

Aireko zatia, edo kimu samurrak bakarrik, barazki gisa kontsumitu dira: egosita, frijituta, tortillan, arrautzarekin nahastuta, edo, besterik gabe, entsalada gisa. Araban, zopa egiten dute, eta osinak (*Urtica dioica*), Venusen zilborra (*Umbilicus rupestris*) eta beste barazki batzuk eransten dizkiote.

Lurrinak egiteko ere erabili da, loreak uretan eta alkoholetan beratuta. Landare freskoa erabiltzen zen arropa beltza garbitzeko, xaboiaren orban zuririk ez geratzeko eta haren koloreari eusteko. Sustraiaren estraktua toniko gisa erabili izan da kosmetikan.

Sustrai luzea duen landarea da, eta lurzorua ona dela adierazten du.

## APAINGARRI GISA ERABILTZEA

Haren infloreszentzien kolore bioleta dela eta, espezie apaingarri gisa egokia da basa-itxurako lorategietan.

Informazio gehiago:

<https://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/ac84aBuscadorWar/especies/11726>  
<https://www.conecte.es/index.php/es/plantas/1400-medicago-sativa>  
<https://www.iucnredlist.org/es/species/174725/19402449>  
[http://www.floraiberica.es/floraiberica/texto/pdfs/07\\_41%20Medicago.pdf](http://www.floraiberica.es/floraiberica/texto/pdfs/07_41%20Medicago.pdf)  
<https://spain.inaturalist.org/taxa/57057-Medicago-sativa>

# *Narcissus pseudonarcissus*

Euskara: Lilipa, Nartziso  
Gaztelania: Narciso de los prados

Familia: *Amaryllidaceae*

Babes-maila: Europako Zerrenda Gorria: -  
Habitaten Zuzentzaraua: -  
139/2011 ED: -  
AEEZ: -



## ESPEZIEAREN IDENTIFIKAZIOA

Espezie honek **erraboil** arre bat du, eta hortik, neguaren amaieran, hostoak eta **loreak** sortzen dira, ugariak eta deigarriak: pedizelo zuzena edo kurbatu samarra dute, sekzio zirkularrekoa, eta kolore hori bizia edo krematsua dute. **Haziak** oboideak eta beltzak dira.

Espezie honek mendiko belardiak ditu gustukoen, baldin eta hezetasuna bada, baso hostogalkorren belar-orkak badaude, koniferoen basoen azpiko larreak badira, eta ibaiertzeko basoak eta harkaitz-erlaintzak badaude, eta errepideen ertzetan ere agertzen dira.

100 eta 2.000 m artean dago, eta otsailetik ekainera loratzen da.

## BISITAN JOATEN ZAIZKION INTSEKTUAK

Haren lore izugarriak erle europarrak, *Vanessa cardui* tximeletak edo erlasterrek bisitatzen dituzte.

## ESPEZIEAREN BEREZITASUNAK

Espezie hau toxikotzat jotzen da abereentzat eta pertsonentzat.

Hala ere, lorearen estraktua kosmetikan erabil daiteke, larruazala egokitzeko.

## APAINGARRI GISA ERABILTzea

Balio apaingarri handia du, haren loreen eta haren aromaren erakargarritasunagatik; hala, tradizionalki baratzeetan eta lorategietan landu izan dira, loreen ikusgarritasunagatik, eta, hain zuzen ere, lorezaintzako barietate ugari lantzen dira hirietan.

Informazio gehiago:

<https://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/ac84aBuscadorWar/especies/12556>

<https://www.iucnredlist.org/es/species/162402/5586724>

<https://www.gbif.org/species/2858244>

[http://www.farmazia.ehu.es/p046-](http://www.farmazia.ehu.es/p046-11213/es/contenidos/informacion/jardin_virtual/es_jardin/adjuntos/72.naps.htm)


[11213/es/contenidos/informacion/jardin\\_virtual/es\\_jardin/adjuntos/72.naps.htm](http://www.farmazia.ehu.es/p046-11213/es/contenidos/informacion/jardin_virtual/es_jardin/adjuntos/72.naps.htm)

# Origanum vulgare

Euskara: Oregano  
Gaztelania: Orégano

Familia: *Lamiaceae (Labiatae)*

Babes-maila: Europako Zerrenda Gorria: Kezka txikikoa  
Habitaten Zuzentaraua: -  
139/2011 ED: -  
AEEZ: -



## ESPEZIEAREN IDENTIFIKAZIOA

Landare belarkara da, iraunkorra, zurezkoa oinarrian, lau angeluko sekzioko zurtoin adartsuekin. **Hostoak** aurkakoak dira, eliptikoetatik obatueta, osoak edo horzdunak, iletsuagoak edo ez hain iletsuak. **Infloreszentziak** taldeka jartzen dira, ezaugarri oboide edo zilindrikoak osatuz, brakteo berde edo purpurekin. Kaliza txikia eta hodi-formakoa da, eta 5 hortz berdindu. Korola zuria edo purpura da, eta 4 lorezil nabarmentzen dira. **Fruitua** lau mukulu azpiesferikoz osatuta dago, gaztaina-kolore ilunekoak.

Sastrakadietan, baso-orletan, belardietan edo laborantza-mugetan banatzen da, 1.700 m-raino, eta maiatzetik urrira loratzen da.

## BISITAN JOATEN ZAIZKION INTSEKTUAK

Gune batzuetan oregano-adarrak erabili dira erleak erlauntzetara erakartzeko. *Bombus hortorum* erlastarrak eta *Vanessa atalanta* tximeletak ere gogoko dute espezie honetako loreak bisitatzea.

## ESPEZIEAREN BEREZITASUNAK

Infusioak egiteko erabil daitekeen landarea da; izan ere, adar loredunen infusioa edo egostea hipotentsoretzat eta odol-arazgarritzat hartzen da. Gozagarri gisa ere erabiltzen da hainbat plateretan.

Landare honekin etxeko kolonia bat egin daiteke, beste espezie usaintsu batzuekin egosiz

## APAINGARRI GISA ERABILTZEA

Leku batzuetan, adar loredunak dituzten sorta ikusgarriak egiten dira. Espezie hau baratze eta lorategietan landatzen da maiz.

Informazio gehiago:

<https://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/ac84aBuscadorWar/especies/16056>  
<https://www.conecte.es/index.php/es/plantas/1543-origanum-vulgare>  
<https://www.iucnredlist.org/es/species/203253/2762598>

## Papaver dubium

Euskara: Mitxoleta, urdamutur  
Gaztelania: Amapola oblonga

Familia: *Papaveraceae*

Babes-maila: Europako Zerrenda Gorria: -  
Habitaten Zuzentzaraua: -  
139/2011 ED: -  
AEEZ: -



### ESPEZIEAREN IDENTIFIKAZIOA

Urteko landarea da, 60 cm-ko luzera izan dezake, eta **hosto** basalak ditu, 40 cm-ra arteko lore-kanduekin. **Loreak** 1 eta 3 cm bitarteko petaloak ditu, obobatuak, eta lorezilek kolore biolazeoko anterak dituzte. **Fruitua** 1-2 cm-ko kapsula bat da, ia zilindrikoa, ertz irregularreko erradioen disko ganbilarekin.

Espezie erruderal gisa dago laboreetan, 1.500 m-raino.

Mundu osoan zehar hedatuta dagoen espezie bat da, eta Europan, Mediterraneoko eskualdean, Ipar Amerikan, Australiako hegoekialdean edo Zeelanda Berrian banatzen da.

### BISITAN JOATEN ZAIZKION INTSEKTUAK

Espezie honetako lore gorri deigarriak maiz bisitatzen ditu erle europarrak edo kardu-vanesak.

### ESPEZIEAREN BEREZITASUNAK

Hosto-erroseta basala barazki gisa eta entsaladetan kontsumitu izan da. Iberiar penintsulako zenbait lekutan, gozogintzan ere erabili izan dira landarearen zati batzuk. Bestalde, ohikoa izan da bazka-espezie gisa erabiltzea, nahiz eta eremu batzuetan lore-botoiak erabiltzea saihesten zen, zenbait abere-espezierengan efektu toxiko samarrak sor baititzakete.

### APAINGARRI GISA ERABILTZEA

Matak trinkoak dira, eta loratzen direnean kolore-ukitu interesgarria ematen dute; horregatik, espezie apaingarri gisa erabil daitezke, bai lorategietan, bai barrualdeetan, pitxerrak apainduz, edo lore lehor gisa.

Informazio gehiago:

<https://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/ac84aBuscadorWar/especies/11914>  
<https://www.conecte.es/index.php/es/plantas/1585-papaver-dubium>  
[https://www.plantasyhongos.es/herbarium/htm/Papaver\\_dubium.htm](https://www.plantasyhongos.es/herbarium/htm/Papaver_dubium.htm)

## Rosmarinus officinalis

Euskara: Erromero  
Gaztelania: Romero

Familia: *Lamiaceae*

Babes-maila: Europako Zerrenda Gorria: Kezka txikikoa  
Habitaten Zuzentaraua: -  
139/2011 ED: -  
AEEZ: -



### ESPEZIEAREN IDENTIFIKAZIOA

Zuhaixka bat da, 2 m-raino irits daitekeena, hostoiraunkorra, usaintsua, oso adartsua. **Hostoak** aurkakoak dira, linealak, zorrotzak; ertz nahasikoak, berdeak eta distiratsuak dira gainaldearen aldetik, eta sarritan ile zurixka ugari izaten dute azpialdean. **Loreak** infloreszentzian banatzen dira, luku axilar laburrak osatuz, eta kaliza kanpai-formakoa eta bi ezpainekoa da, eta korolak beheko ezpain deigarria du, 3 lobulurekin, urdin biziak edo zurixkak, orban more luzexkekin. **Fruituak** gaztaina-kolore argiko lau nukula ditu.

Urte osoan lora daiteke, baina, batez ere, neguan eta udaberrian.

### BISITAN JOATEN ZAIZKION INTSEKTUAK

Erleentzako elikagai-iturri ona da, ezti usaintsu bat egiteko erabiltzen baitute, eta, beraz, espezie ezti-emaille garrantzitsutzat hartzen da.

Erlastar arruntek ere bisitatu ohi dituzte haren loreak, baita zenbait dipterok edo *Metasyrphus corollae* eta *Eristalis tenax* sirfidoek ere, haren loreetan artean hegaka ikusten baitira.

### ESPEZIEAREN BEREZITASUNAK

Tradizionalki, likoreen osagai gisa erabili izan da, eta hostoak eta zurtoinak maiz erabiltzen dira hainbat gisatu ontzeko.

Infusio estimulatzaileak prestatzeko balio dute, izpilikua ere gehituz, edo gozokiak ere egiten dituzte lorearekin.

### APAINGARRI GISA ERABILTZEA

Landare hau sukaldaritzan erabiltzearen ondorioz, erraz aurki daiteke baratzeetan eta lorategietan, loreak sortzen direnean berdetasuna eta kolore-ukitu usaintsua ematen baitie.

Informazio gehiago:

<https://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/ac84aBuscadorWar/especies/11883>  
<https://www.conecte.es/index.php/es/plantas/1883-rosmarinus-officinalis>  
<https://www.iucnredlist.org/es/species/203257/2762622>  
[https://www.plantasyhongos.es/herbarium/htm/Rosmarinus\\_officinalis.htm](https://www.plantasyhongos.es/herbarium/htm/Rosmarinus_officinalis.htm)

## Ruscus aculeatus

Euskara: Erratz, isuski  
Gaztelania: Rusco

Familia: *Asparagaceae*

Babes-maila: Europako Zerrenda Gorria: Kezka txikikoa  
Habitaten Zuzentzarua: -  
139/2011 ED: -  
AEEZ: -



### ESPEZIEAREN IDENTIFIKAZIOA

80 cm-ko luzera duen zuhaixka bat da. **Errizoma** du, eta bertatik sekzio zirkularreko zurtoin tenteak abiatzen dira. **Hostoak** oso txikiak dira eta, aitzitik, zurtointxoek hosto-formako zabalgunea dute (edo kladodio hostoiragankorrak), arantza txiki batean bukatuak. Landare dioikoak dira, hau da, eta lore maskulino eta femeninoak dituzte ale desberdinetan, hori berdexkak. **Fruitua** globo-itxurako baia bat da, kolore gorri deigarrikoa, 6-8 mm inguruko hazi batekin edo birekin.

Artadien eta ameztien oihanpeetan edo harkaitzetako pitzaduretan bizi da, 1.500 m-raino. Urte osoan lora daiteke.

### BISITAN JOATEN ZAIZKION INTSEKTUAK

Haren lore txikiak dipteroen, lepidopteroen edo hemipteroen espezie ugari estimatzen dituzte, eta landarea espezie horien mende dago ugaltzeko.

### ESPEZIEAREN BEREZITASUNAK

Egun ohikoa ez den arren, beste garai batzuetan landare honen kimu samurrak zainzuri moduan kontsumitzen ziren. Azala postre eta bizkotxoei usaina emateko ere erabili izan da. Fruituei dagokienez, ezaguna da toxikotasuna, eta ez dira egokiak gizakiek jateko, gorakoak, beherakoak eta konbultsioak eragin baititzakete.

Errizoma-estraktua toniko, lasaigarri, freskagarri eta larruazalaren egokitzaile gisa erabiltzen da kosmetikan.

### APAINGARRI GISA ERABILTZEA

Fruituen ikusgarritasunak, kolore gorri bizikoak, lorategietan landatzeko egokia egiten du, heskai trinkoak osatuz.

Ondo egokitzen da barruko landare gisa, baldin eta neguan tenperatura leuna bada. Adar lehorrak lore-sorten parte izan daitezke.

Informazio gehiago:


<https://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/ac84aBuscadorWar/especies/12719>  
<https://www.iucnredlist.org/es/species/162375/5581331>  
[https://www.plantasyhongos.es/herbarium/htm/Ruscus\\_aculeatus.htm](https://www.plantasyhongos.es/herbarium/htm/Ruscus_aculeatus.htm)

# Sambucus ebulus

Euskara: Intsusa txikia  
Gaztelania: Yezgo o saúco menor

Familia: *Adoxaceae*

Babes-maila: Europako Zerrenda Gorria: Kezka txikikoa  
Habitaten Zuzentzaraua: -  
139/2011 ED: -  
AEEZ: -



## ESPEZIEAREN IDENTIFIKAZIOA

Landare iraunkorra da, **errizoma** batetik sortzen dena. **Adarrek** saiheks ikusgarriak dituzte, berdexkak edo gorrixkak, askotan iletuak. **Hostoak** konposatuak, inparipinatuak eta aurkakoak dira, ondo garatutako estipulekin, eta hainbat foliolo lantzeolatu dituzte, irregularki zerratuak. Lore zuri ugariak korinbo-formako infloreszentzietan banatzen dira. **Fruitua** globo-itxurako drupa bat da, more-belzkara, oso deigarria.

Landarea sarritan bizi da baratzeetan, bide bazterretan eta leku fresko eta hezeetan, eta 1.700 m-raino iristen da.

Maiatzetik irailera loratzen da, eta ekainetik urrira agertzen dira fruituak.

## BISITAN JOATEN ZAIZKION INTSEKTUAK

Erle europarrak edo *Vanessa atalanta* eta *Vanessa cardui* ximeletek bisitatzen dituzte haren lore usaintsuak.

## ESPEZIEAREN BEREZITASUNAK

Zihausriak medikuntzan, albaitaritzan eta intsektuak uxatzeko ere erabiltzen da: beste garai batzuetan, adarrak oilategietan barreiatzen ziren, zorriak uxatzeko, edo ukuiluetan, arkakusoak uxatzeko; izan ere, landarea egostea intsektuak uxatzeko erabiltzen da.

Fruituak ehunak tindatzeko edo idazteko tinta egiteko erabili dira

Fruitu-kantitate handiak kontsumitzea toxikotzat jotzen da, eta hilgarriak ere izan daitezke.

## APAINGARRI GISA ERABILTZEA

Lore zuriak oso erakargarriak dira, eta, beraz, espezie apaingarri gisa erabiltzea ez da gutxiesgarria.

Informazio gehiago:

<https://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/ac84aBuscadorWar/especies/11292>  
<https://www.conecte.es/index.php/es/plantas/1958-sambucus-ebulus>  
<https://www.iucnredlist.org/es/species/202956/2758237>

# Smilax aspera

Euskara: Endalar, arkasats  
Gaztelania: Zarzaparrilla

Familia: *Smilacaceae*

Babes-maila: Europako Zerrenda Gorria: Kezka txikikoa  
Habitaten Zuzentzaraua: -  
139/2011 ED: -  
AEEZ: -



## ESPEZIEAREN IDENTIFIKAZIOA

Oinarrian egurrezko liana bat da, glabroa, dioikoa, **errizoma** finarekin. **Zurtoina** 6 m-ra irits daiteke, glabroa da eta arantzak ditu.

**Hostoek** pezioloa dute eta gezi-formakoak edo lantzeolatuak dira, ertz osokoak, arantzatsu koriazekoak, txandakakoak eta orban horidunak. **Loreak** infloreszentzian banatzen dira eta krema-zuriak dira. **Fruitua** globo-itxurako baia bat da, heltzean gorritik beltzera doana.

Baso hostogor eta hostogalkorretan egoten da, edo sastrakadi termofiloetan, 1.400 m-raino. Apiriletik abendura loratzen da. Eskualde mediterraneoko zuhaixka bat da.

## BISITAN JOATEN ZAIZKION INTSEKTUAK

Haren loreek nektarra sortzen dute, mota guztietako polinizatzaileak erakartzen dituen usain gozo eta sarkorra dute, eta erle arruntak edo kardu-vanesak, gurgurioen liztorrak (*Cerceris arenaria*) edo *Chrysotoxum intermedium* eta *Melanostoma mellinum* sirfidoek bisitatzen dituzte.

## ESPEZIEAREN BEREZITASUNAK

Penintsulako zenbait lekutan, espezie horren kimu samurrak basa-zainzuri gisa erabili dira barazki gisa.

Endalarraren sustraia edari freskagarriak edo likoreak egiteko erabili izan da. Hostoak, berriz, abere-mota guztientzako bazka dira.

## APAINGARRI GISA ERABILTzea

Fruituen kolorazio ikusgarriak eta zuhaitzek, harkaitzek, hormek eta beste egitura batzuek adarkatzeko duten gaitasunak lorategi-itxurako landare apaingarri interesgarri bihurtzen dute. Barnealdean, adarrak Gabonetako dekorazio gisa erabili dira, lore-zentro delikatuak eginez.

Informazio  
gehiago:

<https://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/ac84aBuscadorWar/especies/12754>

<https://www.conecte.es/index.php/es/plantas/2128-smilax-aspera>

<https://www.iucnredlist.org/es/species/203480/2766145>

[https://www.plantasyhongos.es/herbarium/htm/Smilax\\_aspera.htm](https://www.plantasyhongos.es/herbarium/htm/Smilax_aspera.htm)

## Sorbus aria (*Aria edulis*)

Euskara: Hostazuri  
Gaztelania: Mostajo

Familia: *Rosaceae*

Babes-maila: Europako Zerrenda Gorria: Kezka txikikoa  
Habitaten Zuzentzaraua: -  
139/2011 ED: -  
AEEZ: -



### ESPEZIEAREN IDENTIFIKAZIOA

Askotan zuhaixka-proportzioak baino lortzen ez dituen arren, zuhaitz bat da, eta, baldintza egokietan, 20 metroko garaierara ere irits daiteke. **Hostoak** peziolatuak, sinpleak, eliptikoak edo orbikularrak dira, hortz irregularrekin zerratuak, zurixkak azpialdean. **Loreak** korinbo-forman jarrita daude, sepalo eta petalo zuriekin. **Fruitua** pomo bat da (hau da, sagar ñimiño bat gogorazten du), globo-itxurakoa edo udare-formakoa, lentizelak sakabanatuta dauzkana.

Basoetan banatzen da, batez ere hostogalkorretan edo, batzuetan, sastrakadietan, edozein substratutan, 2.200 m-raino. Maiatzetik uztailean loratzen da.

### BISITAN JOATEN ZAIZKION INTSEKTUAK

Bertara joaten diren intsektuen artean *Vanessa atalanta* tximeleta, erle europarra edo *Andrenidae* familiako erle txikiak daude. *Dermestidae* familiako koleopteroak ere aurki daitezke espezie honetan, bai eta hainbat sirfido-espezie ere.

### ESPEZIEAREN BEREZITASUNAK

Fruituak jangarriak dira, eta, hain zuzen ere, eskasia egon den garaietan, elikagai-iturri garrantzitsua izan dira, eta freskoak edo lehorrak kontsumi daitezke. Fruituak ere aziendarentzat jangarriak dira, eta azeriek udazkenean bilatzen dituzte, beren dieta osatzeko.

Espezie honen zura sukaldeko tresnak egiteko erabili da.

### APAINGARRI GISA ERABILTZEA

Gero eta gehiago estimatzen den espezie bat da, hirietan lorezaintzarako erabiltzeko, bere eitearen edertasunagatik eta bere loreen dotoretasunagatik. Eremu batzuetan, espezie hori eredutzat erabili izan da sagarrondoak txertatzeko.

Informazio gehiago:

<https://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/ac84aBuscadorWar/especies/12252>  
<https://www.conecte.es/index.php/es/plantas/2155-sorbus-aria>  
<https://www.iucnredlist.org/es/species/62861/80566478>

# *Spartium junceum*

Euskara: Isats espainiar  
Gaztelania: Retama de olor

Familia: *Fabaceae*

Babes-maila: Europako Zerrenda Gorria: -  
Habitaten Zuzentzaraua: -  
139/2011 ED: -  
AEEZ: -



## ESPEZIEAREN IDENTIFIKAZIOA

Zuhaixka bat da, 3 m-ainokoa, hostogalkorra, **zurtoin** zilindrikoak eta saihets, glabro, goranzko eta berde ugari dituen. **Hostoak** txandakatuak edo aurkakoak dira, lantzeolatuak, foliolo batekin, gainaldean glabroak eta azpialdean zetadunak. **Loreak** luku luzexkatan banatzen dira, terminaletan, eta korola horia dute, oso usaintsua. **Fruitua** zorro luzanga bat da, lautua, hainbat hazi oboide dituen, gorrixkak eta gaztaina-kolorekoak. Amildegietan bizi da, substratu hezeen gainean, 400 eta 1.000 m bitartean. Apiriletik ekainera loratzen da eta ematen du fruitua. Eskualde mediterraneoan eta makaronesiarrean du jatorria, eta Amerikan, Afrikako hegoaldean eta Australian sartu eta inbaditzaile bihurtu da.

## BISITAN JOATEN ZAIZKION INTSEKTUAK

Landare ezti-emaile ona da, eta erlastar arruntek ere estimatzen dute.

## ESPEZIEAREN BEREZITASUNAK

Loreak likoreak egiteko erabili dira, eta zati berde osoa, baita loreak ere, untxientzako elikagai izan dira.

Haren adarrak saskigintzan ere erabili dira. Hala ere, kontuan izan behar da espezie toxikoa dela, zitisina eta esparteina daudelako.

## APAINGARRI GISA ERABILTzea

Askotan, errepideetako areka eta banaleroetan lantzen da, eta heskai ikusgarriak eratzen ditu, berdeak, horiz zipriztinduak landareak loratzen direnean. Lorezaintzan apaingarri gisa asko erabiltzen den landarea da. Gainera, ez da arraroa espezie hori erabiltzea lore-apaingarriak egiteko.

Informazio gehiago:

<https://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/ac84aBuscadorWar/especies/11651>  
<https://www.conecte.es/index.php/es/plantas/2163-spartium-junceum>

# Thymus vulgaris

Euskara: Ezkai  
Gaztelania: Tomillo

Familia: *Lamiaceae*

Babes-maila: Europako Zerrenda Gorria: Kezka txikikoa  
Habitaten Zuzentzaraua: -  
139/2011 ED: -  
AEEZ: -



## ESPEZIEAREN IDENTIFIKAZIOA

Zuhaixka txikia da, aurkako **hostoak** ditu, linealak edo eliptikoak, tomentudunak, erdiko nerbio nabarmenarekin eta ertz errebolutuarekin. **Loreek** galburu-formako infloreszentziak osatzen dituzte, bi ezpaineko korolarekin, zurixkak edo purpura argiak. Brakteak hostoen antzekoak dira. **Fruituak** lau nukula ditu. Jatorriz Europakoa da.

## BISITAN JOATEN ZAIZKION INTSEKTUAK

Interes ezti-emaileko espezie bat da, erle europarrak bisitatzen duena, beste espezie batzuen artean, eta lore bakarreko ezti sortzen du. Hainbat inurri-espezie ere bisitatzen dute.

## ESPEZIEAREN BEREZITASUNAK

Espezie hori ongailu gisa erabili ohi da gaztak, gisatuak, zopak, haragiak, arrainak, saltsak eta abar aromatizatzeko. Oinarritzko olioak pasta dentifrikoak eta kosmetikoak aromatizatzeko erabiltzen da (bizarra moztu osteko lozioak).

Funtsezko olioak bakterioen eta antifungikoen aurkako propietateak ditu, fenol ugari dituelako; hala ere, landareak eta haren funtsezko olioak ukipenezko dermatitisa eragin dezakete, eta lipidoen metabolismoari eragin, pertsona sentikorretan.

## APAINGARRI GISA ERABILTZEA

Hiri-baratzeetan erabiltzen da, bai eta lorategi arroksuetan ere, eta, historikoki, lorategi erromatarretan eta Erdi Arokoan asko landutako landarea izan zen.

Informazio gehiago:

<https://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/ac84aBuscadorWar/especies/16850>  
<https://www.conecte.es/index.php/es/plantas/2289-thymus-vulgaris>  
<https://www.iucnredlist.org/es/species/203348/2764289>  
[https://www.plantasyhongos.es/herbarium/htm/Thymus\\_vulgaris.htm](https://www.plantasyhongos.es/herbarium/htm/Thymus_vulgaris.htm)

# Valeriana officinalis

Euskara: Belar bedekinkatu  
Gaztelania: Valeriana

Familia: *Valerianaceae*

Babes-maila: Europako Zerrenda Gorria: Kezka txikikoa  
Habitaten Zuzentzaraua: -  
139/2011 ED: -  
AEEZ: -



## ESPEZIEAREN IDENTIFIKAZIOA

Landare iraunkorra da, 2,3 m-ainakoa, **errizoma** eta zurtoin bakarra ditu, eta tente adarkatzen da. Hostoak pinatisektuak dira, behekoak peziolatuak, goikoak sesilak. **Loreak** korinbo-formako infloreszentzietan biltzen dira, lore hermafroditak edo femeninoak dituztenak, korola zurixka edo arrosa dutenak. **Fruitua** akenio oboidea da, zirkuluerdi-formako sekzioa du, alboetako saihetsekin eta kardilaun eroriarekin. Belardietan banatzen da, ibaien, erreken eta beste hezegune batzuen ondoan, edo baso-soilguneetan, eta lehentasuna du leku nitrifikatuetan, 30 eta 2.000 m bitartean. Ekainetik abuztura loratzen da. Europakoa eta Asiako zati handi batekoa da.

## BISITAN JOATEN ZAIZKION INTSEKTUAK

Bai kardu-vanesak, bai erle europarrak, espezie horretako loreak bisitatzea atsegin dute.

## ESPEZIEAREN BEREZITASUNAK

Tradizionalki, landare honetako prestakinak erabili izan dira digestio-laguntzaile gisa edo jateko gogoa zabaltzeko, batzuetan, kamamila edo mihiluarekin nahastuta, besteak beste. Ezagunak dira, halaber, lasaigarri gisa dituzten propietateak (loaren nahaste txikiagoen tratamendu sintomatikoan erabiltzen da), eta, izan ere, 1983tik landare hori *Farmakopea europarrean*<sup>12</sup> sartuta dago.

## APAINGARRI GISA ERABILTZEA

Haren loreak, txikiak izan arren, delikatuak eta ugariak dira, eta, beraz, ez da arbuiagarria ondo zaindutako lorategi batean duen apaindura-efektu atsegina.

Informazio gehiago: <https://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/ac84aBuscadorWar/especies/16212>  
<https://www.conecte.es/index.php/es/plantas/2369-valeriana-officinalis>  
<https://www.iucnredlist.org/es/species/201537/2708339>  
[http://www.floraiberica.es/floraiberica/texto/pdfs/15\\_157\\_01\\_Valeriana.pdf](http://www.floraiberica.es/floraiberica/texto/pdfs/15_157_01_Valeriana.pdf)  
[https://www.plantasyhongos.es/herbarium/htm/Valeriana\\_officinalis.htm](https://www.plantasyhongos.es/herbarium/htm/Valeriana_officinalis.htm)

<sup>1</sup> <https://pheur.edqm.eu/home>

# Veronica officinalis

Euskara: Triaka-belarra  
Gaztelania: Verónica

Familia: *Scrophulariaceae*

Babes-maila: Europako Zerrenda Gorria: Kezka txikikoa  
Habitaten Zuzentzaraua: -  
139/2011 ED: -  
AEEZ: -



## ESPEZIEAREN IDENTIFIKAZIOA

Landare iraunkorra da, goranzko zurtoinak oso iletsuak ditu eta igotzeko ahalmena du. **Hostoak** aurkakoak dira, obalatuak edo eliptikoak, zerratuak, iletsuak eta pezioloz hornituak. **Loreak**, berriz, luku axilarretan ageri dira (15-25 lore, pedizeloarekin), eta lau petalo dituzte, urdinak edo arrosak. **Fruitua** kapsula konprimatu bat da.

Substratu silizeoko larreetan bizi da, 300 eta 2.300 m artean, eta ekainean eta uztailean loratzen da.

Jatorriz Europakoa espeziea da, modu basatian hazten da lurzoru silizeoetan (Europa osoko basoak eta belardiak, eskualde mediterraneoan izan ezik).

## BISITAN JOATEN ZAIZKION INTSEKTUAK

*Veronica officinalis* espezieak polinizatzaile ugari erakartzen ditu, hala nola erleak eta euliak.

## ESPEZIEAREN BEREZITASUNAK

Infusioan, aireko zati loreduna digestio-toniko gisa erabili izan da tradizionalki (espezie horrek duen printzipio mikatzari esker).

Landare hori kolutorio gisa erabiltzen zen, ahoko eta eztarriko hanturak tratatzeko; egoste horrek zauriak orbaintzen laguntzeko ere balio duela dirudi, azeri-buztanarekin nahastuta (*Equisetum* sp.).

## APAINGARRI GISA ERABILTZEA

Lore urdin edo arrosa delikatuak dituen landarea da, eta, beraz, kolore-ukitu bat eman diezaioke hiriko edozein lorategitan.

Informazio gehiago:

<https://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/ac84aBuscadorWar/especies/12435>  
<https://www.conecte.es/index.php/es/plantas/2391-veronica-officinalis>  
<https://www.iucnredlist.org/es/species/203390/2764839>  
<https://www.gbif.org/species/3172049>  
[http://www.floraiberica.es/floraiberica/texto/pdfs/13\\_144\\_19\\_Veronica.pdf](http://www.floraiberica.es/floraiberica/texto/pdfs/13_144_19_Veronica.pdf)  
<https://spain.inaturalist.org/taxa/129020-Veronica-officinalis>

## TERMINOEN GLOSARIOA

| Terminoak              | Esanahia                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |
|------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <i>Afilo</i>           | Hostorik gabea.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      |
| <i>Akenio</i>          | Fruitu lehorra, monospermoa eta indehiszentea, <i>Compositae</i> familiakoak bezala ( <i>cipsela</i> ere esaten zaio).                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |
| <i>Aktinomorfiko</i>   | Simetria erradialeko plano batean banatzen diren landarearen organo edo zatiei aplikatzen zaie.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      |
| <i>Antera</i>          | Lorezilaren goiko zatia, batzuetan konkortuagoa; polena jasotzen du                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |
| <i>Babes-maila</i>     | Europako Zerrenda Gorria: IUCNren zerrenda gorrian jasotzen duen kategoria. 139/2011 ED: espeziea Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoan sartuta dagoen ala ez adierazten da.<br>Habitaten Zuzentaraua: espeziea 92/43/EEE Zuzentarauaren eranskinen batean dagoen ala ez islatzen da.<br>Euskadi: espeziea Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoan sartuta dagoen ala ez adierazten da (Euskal Herriko Natura Babesteko 16/94 Legearen bidez sortu zen katalogoa). |
| <i>Bertizilastro</i>   | Elkarrengandik oso hurbil dauden loreen multzoa; esaterako, ezpaindunak, zeinak bertizilotan multzokatzen direla ematen baitu.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       |
| <i>Bertizilo</i>       | Landare baten hiru organo edo gehiago ditu, hala nola hostoak, loreak (petaloak, sepaloak, lorezilak edo karpeloak), zurtoinaren adabegi beretik sortzen direnak.                                                                                                                                                                                                                                                                                                    |
| <i>Bipinnatisektak</i> | Hosto moztua, lobulutan sakon banatua, baina zatiketak ez dira erdiko nerbioetara iristen.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |
| <i>Braktea</i>         | Zenbait landareren kandutik sortzen den hostoa; eskuarki, formagatik, sendotasunagatik edo koloreagatik bereizten da benetako hosto batetik. Brakteen funtzio nagusia loreak babestea da, eta, horrela, landarearen ugalketa ziurtatzen da.                                                                                                                                                                                                                          |
| <i>Dekunbente</i>      | Lurzoruan zabaldutako zurtoina, sustraitu gabea.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     |
| <i>Dekurrente</i>      | Hosto eseriak; haien linboa beherantz luzatzen da zurtoinean soldatuta, eta gandar-moduko bat osatzen dute.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                          |
| <i>Drupa</i>           | Fruitu sinplea da, mesokarpo haragitsu, koriazee edo haritsukoa, zurezko endokarpo bat inguratzen duena, normalean lokotx edo hezur izenez ezagutzen dena.                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |
| <i>Eleosoma</i>        | Haziaren kanpoaldean kokatutako substantzia nutritiboen erreserba (normalean, olioena).                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                              |
| <i>Erraboil</i>        | Organo baten zati basal loditua. Lur azpiko organoa; oso ardatz laburra du, eta haren katafiloak edo hosto-oinarriak erreserba-organo bihurtzen dira. Perretxikoetan, oinaren zati basal loditua.                                                                                                                                                                                                                                                                    |
| <i>Errekurbatu</i>     | Hutsunea kanpoaldean edo behealdean geratzeko moduan kurbatua.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       |
| <i>Errezeptakulu</i>   | Lore zatiak txertatuta dauden tokia; askotan, fruitua eratzen laguntzen du.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                          |
| <i>Errizoma</i>        | Lur azpiko zurtoina; haren bidez, landareak sustraiak eta kimu belarkarak sortzen ditu. Mantenu gaien erreserba-organoak dira.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       |
| <i>Erruderal</i>       | Lursail landugabeak edo hondakinak isurtzen diren lurretan agertzen den espeziea.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    |
| <i>Eskarioso</i>       | Mintzezko sendotasuna duena, lehor eta zurrin samarra eta, oro har, gardenak.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        |
| <i>Esklerofilo</i>     | Hosto gogorak, koriazeeak edo lodiak dituen landarea; muturreko ingurumen-baldintzetara egokituta daude hosto horiek.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                |
| <i>Estigma</i>         | Polena atxikitzen duen pistiloaren zati apikala.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     |
| <i>Estilo</i>          | Angiospermoetako ginezeoko obulutegiaren goiko zatia; filiforme samarra da, eta estigma bat edo gehiago hartzen ditu.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                |

| Terminoak                   | Esanahia                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                         |
|-----------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <i>Estipula</i>             | Zenbait hostotako pezioloaren oinarrian kokatutako egitura laminarrak, zenbaitetan glandulak edo arantzak.                                                                                                                                                                                                                                                       |
| <i>Estoloi</i>              | Lurzoruarekiko paralelo hazten den eta tarteka sustraitzen den zurtoina.                                                                                                                                                                                                                                                                                         |
| <i>Farmakopea europarra</i> | Europar farmazia-produktuak prestatzeko erabiltzen diren printzipio aktiboak barne hartzen dituen farmakopea; besteak beste, substantzia kimikoak, antibiotikoak, substantzia biologikoak, gizakiek edo albaitariek erabiltzeko txertoak, serum immunologikoak, erradiofarmakoen prestakinak, fitoterapikoak, prestakin homeopatikoa eta erreserba homeopatikoa. |
| <i>Flora</i>                | Leku jakin batean bizi diren landareen multzoa.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |
| <i>Folikulu</i>             | Karpelo bakarretik sortutako fruitu lehorra (karpelobakarra), hazi bat baino gehiagokoa; haziak askatzeko irekitzen denean, luzetara zatitzen da, haustura-eremu bakarrean, sabelaldeko eremu izenekoa.                                                                                                                                                          |
| <i>Fronde</i>               | Frondea da benetako garoek edo garo esporofitoek duten hosto bakarra, eta hainbat foliolo sesiletan banatuta agertzen da.                                                                                                                                                                                                                                        |
| <i>Gara</i>                 | Hostorik gabeko zurtoina; muturrean, lorea edo infloreszentzia du.                                                                                                                                                                                                                                                                                               |
| <i>Hazi</i>                 | Landare-egitura; hor, enbrioia bizi-egoera latentean dago, mantenehunetz lagunduta ala ez, eta estalkiz babestuta. Hazi-hasikinetik dator, eta, angiospermoetan, fruitu baten barruan dago.                                                                                                                                                                      |
| <i>Hegal</i>                | Edozein organoren gainazaleko dilatazio laminarra.                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |
| <i>Hermafrodita</i>         | Ugalketa-organo eme eta ar funtzionalak dituen izaki biziduna.                                                                                                                                                                                                                                                                                                   |
| <i>Hosto</i>                | Zurtoinetik edo adarretatik sortzen den eta funtzio nagusi gisa fotosintesian sortutako karbohidratoak asimilatzea duen landare-organoa.                                                                                                                                                                                                                         |
| <i>Inparipinatu</i>         | Errakiaren amaieran foliolo bat duen hosto konposatu eta pinatua.                                                                                                                                                                                                                                                                                                |
| <i>Infloreszentzia</i>      | Loreek adarretan edo zurtoinaren muturretan duten banaketa; hosto arrunt batek zehazten du haren muga, eta multzo trinko samarrak osatzen ditu zurtoinaren muturretan.                                                                                                                                                                                           |
| <i>Intsektu</i>             | Gorputz segmentatua (burua, toraxa eta abdomena) duen ornogabea. Sei hanka-pare ditu.                                                                                                                                                                                                                                                                            |
| <i>Iraunkor</i>             | Hiru urte edo gehiago bizitzen den landarea. Hostoak bi urtez baino gehiagoz mantentzea.                                                                                                                                                                                                                                                                         |
| <i>Kaliza</i>               | Lorearen bertizilo kanpoaldekoena; haren piezei sepalo esaten zaie, oro har berdeak dira eta hosto begetatiboen antz handiena dutenak dira.                                                                                                                                                                                                                      |
| <i>Kamuts</i>               | Puntan amaitzen ez dena.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                         |
| <i>Kandu</i>                | Hostoa, lorea edo fruitua zurtoinarekin lotzen duen txortena.                                                                                                                                                                                                                                                                                                    |
| <i>Kapitulu</i>             | Lore-buru edo infloreszentzia irekia edo luku gisakoa; infloreszentzia horretan, kandua zabaldu egiten da muturrean, eta disko lodi samar bat osatzen du; haren gainean jartzen dira lore eseriak (pedizelarik gabeak).                                                                                                                                          |
| <i>Kardilaun</i>            | Fruituaren goiko aldean agertzen diren eta sakabanatzen eta sorburuko landaretik urruntzen laguntzen dioten ile soil edo lumatsuen, zurden edo ezkatzen multzoa.                                                                                                                                                                                                 |
| <i>Karpelo</i>              | Hosto aldatuak dira, eta, zenbait espezieetan (angiospermoak), lorearen ugalketa-zati emea da.                                                                                                                                                                                                                                                                   |
| <i>Kaulinar</i>             | Botanikan, zurtoinarena edo zurtoinari buruzkoa. Hosto bati buruz ari bagara, hosto kaulinarrak zurtoinetik zuzenean sortzen dira.                                                                                                                                                                                                                               |
| <i>Korinbo</i>              | Infloreszentzia honetan, loreak altuera desberdinetan kokatzen dira ardatzean; pedizeloak hain luzeak dira, ezen loreen multzoak gainazal lau, ahur edo ganbil bat osatzen baitu.                                                                                                                                                                                |
| <i>Kuneatu</i>              | Oinarrian pixkanaka estutzen den hostoa                                                                                                                                                                                                                                                                                                                          |
| <i>Laziniatu</i>            | Laziniak edo segmentu estu eta luzeak dituen, sarritan irregularrak.                                                                                                                                                                                                                                                                                             |
| <i>Lantzeolatu</i>          | Lantza-formakoa, estuki eliptikoa eta punta-formako muturrak dituen.                                                                                                                                                                                                                                                                                             |

| Terminoak            | Esanahia                                                                                                                                                                                                                                            |
|----------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <i>Loraketa</i>      | Landare baten ugaltze-faseari hasiera ematen dion prozesua. Prozesu horren arrakasta gertatzen den unearen arabera da; uneak egokiena izan behar du garatze-prozesuaren barruan, eta une horretan ingurumen-baldintzek ezin hobeak izan behar dute. |
| <i>Lentizela</i>     | Arnas funtzioa duten irekidurak, zurtoinen, sustraien eta, bakanago, pezioloen eta fruituen gainazalean daudenak.                                                                                                                                   |
| <i>Ligula</i>        | Konposatuaren kapituluetan, periferiako edo infloreszentzia osoko loreek dituzten koroletako bakoitza dira ligulak.                                                                                                                                 |
| <i>Lore</i>          | Goiko landareetako sexu-organoen eta haiek babesten dituzten bilgarrien (kaliza eta korola) multzoa.                                                                                                                                                |
| <i>Lorezil</i>       | Angiospermoen loreko androzeo edo organo arra osatzen duten eta gutxienez polen-zakuak dituzten elementu filiformeetako bakoitza.                                                                                                                   |
| <i>Moztu</i>         | Zeharkako plano batek ebaketa gisa errematatutako organoa.                                                                                                                                                                                          |
| <i>Mesokarpo</i>     | Perikarpoaren tarteko geruza, hau da, endokarpoaren eta epikarpoaren artean dagoen fruituaren zatia.                                                                                                                                                |
| <i>Nerbio</i>        | Hosto baten edo beste organo hostokara batzuen laminan dauden bala baskularretako bakoitza.                                                                                                                                                         |
| <i>Nukula</i>        | Intxaur-itxurako fruitu lehorra.                                                                                                                                                                                                                    |
| <i>Obal</i>          | Obalo edo elipse ez-oso eszentrikokoa.                                                                                                                                                                                                              |
| <i>Obkordatu</i>     | Bihotz-formako hostoa, alde zabala puntan duela.                                                                                                                                                                                                    |
| <i>Oblantzeolatu</i> | Forma alderantziz lantzeolatua.                                                                                                                                                                                                                     |
| <i>Oblongo</i>       | Organo luzanga, zabala baino luzeagoa.                                                                                                                                                                                                              |
| <i>Orri</i>          | Hosto baten edo beste organo hostokara baten zati laminarra. Korola gamopetalo bateko hodiaren muturrean kokatutako petalo baten zati askea edo laminarra.                                                                                          |
| <i>Papirazeo</i>     | Papiroaren edo paperaren antzekoa.                                                                                                                                                                                                                  |
| <i>Pedizelo</i>      | Lore bakoitza infloreszentzia baten ardatzarekin lotzen duen txortena.                                                                                                                                                                              |
| <i>Pentamero</i>     | 5 piezaz osatutako egitura. Lorearen kasuan, 5 petaloko korola eta 5 sepaloko kaliza dituena.                                                                                                                                                       |
| <i>Perianto</i>      | Lorearen zati emankorrak inguratzen dituzten pieza antzuen multzoa (sepaloak, petaloak edo tepaloak).                                                                                                                                               |
